

30/1998 DEKRETUA, otsailaren 24ekoa, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duena. (Hutsen zuzenketa, EHAA 51 ZK., 1998/03/16)

1.– Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak Eusko Jaurlaritzari agindu dio «Ertzaintzako hizkuntza normalkuntzaren prozesua» arautzeko, polizi kidego horren izaera eta berezitasun funtzionalak kontuan hartuz, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. idazpuruan ezarritako arau orokorrekin bat etorritz.

Berezitasun horiek zerikusia dute Ertzaintzaren apurka-apurkako eraketa prozesuaren ezaugarriekin, bai eta kidego horrek dituen eginkizunekin eta eginkizunok dakartzaten organizazio betekizunekin ere. Eta berezitasun horiek azaltzen dute, hain zuzen ere, Ertzaintza orain arte funtzionarioen hizkuntz gaitasunerako planifikatutako sisteman sartu ez izana. Dena den, hori guztia ez da eragozpen izan, legeak agindu duen legez, langileak apurka-apurka euskalduntzeko testuinguru honetan legezkoak eta posibleak diren beste formula batzuen bidez.

Euskararen Erabilpena Arauzkutzeko Oinarrizko Legea nagusi den marko legalean eta goian aipatutako legeek, hau da, Euskal Herriko Poliziari eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko legeek osatzen duten marko legalean, dekretu honen helburua da jarduteko plana arautzea, ertzain guztiek euren eginkizunen arabera egokitutako euskara-gaitasuna lor dezaten, euskal herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz.

2.– Aipatutako parametro horiek direla eta, dekretu hau arautzean Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen V. idazpuruko kontzeptu eta arau orokorren sitema, komunitatearentzat funtsezkoa den zerbitzu publikoa eskaintzeko ardura duen polizi kidego baten betekizunekin bateratu behar izan da; izan ere, zerbitzu hori ezin da eten, eta gaitutako agenteen ordez ezin da beste langilerik jarri, gainera, zerbitzu hori Euskal Autonomia Erkidego guztian eskaini behar da eta, sarri askotan, herritarrekin zuzen-zuzeneko harremana edukiz eta, horrek guztiak, horretarako behar den hizkuntza gaitasunaren ezaugarriak eta beste laguntza zerbitzu batzuen gertutasuna baldintzatzen du.

Zerbitzuaren ezaugarri berezi horiek kontuan hartu behar dira ezinbestean, eta ezaugarri horiek eragin dute Ertzaintzan aplikatuko diren hizkuntza eskakizunen definizioaren berezitasuna, mintzamen gaitasunari nagusitasuna eta lehentasuna emanez. Baina horrek, era berean, arau bereziak ekarri ditu lanpostuei dagokien derrigortasun-datak ezartzean eta funtzionarioen prestakuntzarako Administrazioak jarritako baliabideak egituratzeko moduan, funtsezko zerbitzu publiko batek eskatzen duen etengabeko jarraipenari dagozkion betekizunetara egokitu behar izan baita.

3.– Dekretuan atalburu oso bat zuzendu da Ertzaintzako funtzionarioei zuzendutako hizkuntza gaitasun ikastaroak arautzeko. Izan ere, Ertzaintzaren barruan, euskara normalkuntzaren prozesuan oinarri-oinarrizkoa da funtzionarioen hizkuntza gaitasuna lortzeko prozesuaren planifikazioa zerbitzuaren berezitasunei egokitzea, eta gorabehera horrek agerian jartzen du arau hau diseinatu duen marko juridikoa osatugabea izango litzatekeela, baldin eta kontuan hartuko ez balira arau honetan ikastaro hauei buruz aurreikusten diren berezitasunak.

Puntu honetan, dekretu honek Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea garatzen du. Legeak Herrizaingo Sailari agindu dio, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren bidez, agenteen hizkuntz gaitasun egokia ahalbidetuko duen prestakuntza jardueren programazioa egiteko, herritarren hizkuntz eskubideen errespetuan oinarrituz. Marko honetan hizkuntz gaitasunerako ikastaroak arautu dira eta ikastaroetan sartzeko aukeraketa irizpideak zehaztu dira; aukeratuei banan-banan deituko zaie, bakoitzari dagokion ordu-kreditua adieraziz eta ikastaroetara ez joateak ekarriko litzuzkeen ondorioak adieraziz.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, Herrizaingo sailburuak eta Kultura sailburuak erabaterik egindako proposamenez, Ertzaintzaren Kontseilua txostena eman ondoren, Estatu Kontseiluarekin bat etorriz eta Jaurilaritza Kontseiluak otsailaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. atala.– 1.– Dekretu honen helburua da Ertzaintzan euskararen normalizazio prozesua arautzea.

2.– Dekretu hau Ertzaintzako eskala eta kategoria desberdinetako funtzionarioei dagozkien lanpostuei aplikatuko zaie.

II. ATALBURUA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

2. atala.– 1.– Ertzaintzako lanpostuen hizkuntza eskakizuna lanpostua betetzeko eta lanpostu horretan jarduteko beharrezkoa den euskara gaitasun mailaren arabera ezarriko da.

2.– Hizkuntza-eskakizuna zehaztean hizkuntz trebetasun orokorrak (ulermena edo mintzamena edo idazmena) eta zuzen-zuzenean funtzio publiko polizialarekin zerikusia dutenak ezarriko dira.

3. atala.– 1.– Ertzaintzako lanpostuei 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak aplikatuko zaizkie.

2.– Ertzaintzako lanpostu gehienek ezaugarria da berehalakotasuna herritarrarekiko harremanean eta, hori dela eta, 1. Hizkuntza eskakizuna Ertzaintzako lanpostu guztiei aplikatuko zaie, hurrengo atalean aipatutakoiei izan ezik.

3.– 1. hizkuntza-eskakizunak Ertzaintzaren funtzionarioak hizkuntza-trebezia guztietan erabil-tzaileak izatea bermatuko du. 1. hizkuntza-eskakizunaren edukia Dekretu honen I. eranskinean dago.

Dena den, 1. hizkuntza-eskakizunak komunikazio gaitasun nahikoa bermatuko du zerbitzu polizialaren berezko hizkuntza erabilerekin dagokienez, eta idazmenean ere ziurtatu egingo du funtzionarioak gaitasuna izango duela herritarrarekiko berehalako harremanean formulario eta agiri polizialak betetzeko.

4. atala.– 1.– 2. hizkuntza-eskakizuna jarduera-motengatik eta erabili eta sortu behar den dokumentazioarengatik euskaraz hizkuntza-trebezia handia eta aditua eskatzen duten Ertzaintzaren lanpostuei aplikatuko zaie. Edukia Dekretu honen II. eranskinean aipatzen da.

2.– 2. hizkuntza-eskakizunak honakoa bermatuko du: Ertzaintzaren funtzionarioak kultura orokorraren eremuan eta poliziaren eremuan euskaraz egindako edozein diskurtso ulertzen duela eta zuzentasunez, egoki, adierazpen aberatsez eta hitz-jarioz komunikatzeko gai dela. Era berean, testu luzeak eta horien esanahia ulertuko ditu; gai konplexuei buruz testu argiak, behar bezala egituratuak eta zehatzak idazteko gai izango da eta testuen kohesio eta koherentziarako antolaketaketa-mekanismoak behar bezala erabiliko ditu.

5. atala.– Hizkuntza eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak Ertzaintzako lanpostuen zerrendetan derrigorrez agertu beharko luketen espezifikazioetan azaldu beharko dute, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 41. atalean ezarritakoarekin bat etorritik.

III. ATALBURUA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN BANAKETA ETA DERRIGORTASUNA

6. atala.– 1.– Herrizaingo Sailak, Hizkuntz Politikarako Sailordetzak txostena egin ondoren, hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun-data ezarriko du Ertzaintzako lanpostuentzat.

2.– Hizkuntza eskakizunen derrigortasun-data, zerbitzu publiko polizialak gizartearen eskaerari modu egokian erantzuteko beharizanen arabera zehaztuko dira, 7 eta 8. atalekin eta hurrengoekin bat etorritik.

7. atala.– 1.– Ertzaintzako euskararen normalizazio prozesua, dekretu honetan ezarritako helburuak lortzeko, 10 urteko plangintza-alditan antolatuko da, eta aldi horietako bakoitza bost urteko etapa bitan bananduko da. Lehen etaparen amaieran ebaluazio bat egingo da, eta ebaluazio horren balorazioa baliagarria izango da Administrazioaren baliabideei lehentasuna emateko bigarren bosturtekorako finkatutako helburuak lortzeko bidean. Ebaluazio hori Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren txostenaren menpe jarriko da.

2.– Lehen plangintza-aldia bukatzean, Ertzaintzan derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izan beharko duten lanpostuen portzentaia ez da inolaz ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean bigarren plangintza-aldian derrigorrez bete beharreko indizea baino txikiagoa izango. Indize hori aplikatzearen ondorioz ateratako derrigortasun daten erdiek bat etorri beharko dute lehen plangintza-aldiko datekin.

8. atala.– 1.– Hizkuntza eskakizunen derrigortasun datek Ertzaintzako lanpostu guztiak hartzen ez dituzten bitartean, plangintza-aldi bakoitzean lanpostuei, hala badagokio, derrigortasun-data ezartzean, kontuan hartuko dira aldi horretan Ertzaintzaren unitate bakoitzaren jarduera eremuei dagozkien bete beharreko indizeak.

Goiko lerroaldean adierazitakoa gora-behera, Ertzaintzaren unitate bakoitzean derrigortasun-data izango duten lanpostuek ez dituzte gaindituko Ertzaintzaren unitate, sekzio, talde edo zerbitzu bakoitzeko eta kategoria bakoitzeko beharizanen araberrako langile-mugak.

2.– Lanpostu batzuetan dotazio asko izanez gero eta, derrigorrtasun egokia ezartzeko xedez, ezin izango balira jarduera eremuak edo eginkizunak bereizi, derrigortasunak honako lehentasun hauen arabera ezarriko lirarteke (dotazio anizdun lanpostu bateko titularren eskariak modu egokian balioesteko kalterik gabe):

a) Derrigortasuna euskeraren ezaguera maila handiena duen titularren esku dagoen dotazioari ezarriko zaio.

b) Ukitutako titularren kasuan, ez baldin badago desberdintasunik euskararen ezaguera mailan, derrigortasuna lanpostuko dotazioetako titularrek plangintza-aldiaren hasieran duten adinaren arabera ezarriko da, izan ere, derrigortasuna titular gazteena duen dotazioan ezarriko da.

c) Aurreko irizpideak ez balira nahikoa izango, derrigortasuna lanpostuan denbora gutxien darabaten titularrei dagozkien dotazioetan ezarriko da.

3.– Dotazio aniztun lanpostuen kasuan, dotazio horiek banan-banan isladatuko dira lanpostuen zerrendetan, bakoitzari egokitutako hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa den adieraziz eta, hala badagokio, hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data adieraziz.

9. atala.– Hizkuntza eskakizunak derrigorrez aplikatzeko irizpideetan tratamendu zuzena eta proportzionala emango zaie Ertzaintzan dauden lanpostuei, hau da, ez da bereizketarik egingo eskala edo kategoriaren arabera.

IV. ATALBURUA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA AUKERAKETA PROZESUETAN ETA LANPOSTUAK

10. atala.– Derrigortasun-data igarota duten lanpostuak bete behar direnean, lanpostu horietan ezarritako hizkuntza eskakizunak betetzen dituztenak jarri beharko dira, Ertzaintzako funtzionarioen aukeraketa prozesuetan zein lanpostuak betetzeko prozesuetan.

11. atala.– Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen derrigortasun-data, aukeraketa prozesuen eta lanpostuak betetzeko prozesuen deialdietan ezinbestean agertarazi beharko da.

12. atala.– Ertzaintzako funtzionario izateko aukeraketa prozesuetan, hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa denean, hautaprobetan egiaztatu beharko da.

13. atala.– Barne-sustapeneko aukeraketa prozesuetan, hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa denean, dagokion eskala eta kategorian sartu baino lehen, hautaprobetan, prestakuntza ikastaroan edo praktikaldia bukatzean egiaztatu beharko da, deialdiko oinarrietan ezarritakoaren arabera.

14. atala.– 1.– Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den bitartean, euskararen ezagutzari, bai sartzeko hautespen-prozesuetan, bai hornidura-prozesuetan, merezimendu bezala eman behar zaion balorazioa zehazteko erabiliko da.

2.– Euskarak, bai lanpostuen aukeraketan zein lanpostuak betetzean, merezimendu legez izango duen balioa, lanpostuari egokitutako hizkuntza eskakizunaren arabera ezarriko da, eta lanpostua lortzeko gehienezko puntuazioaren %10era arte balioko du 1. Hizkuntza eskakizunaren kasuan eta %20era arte 2. hizkuntza-eskakizunaren kasuan.

V. ATALBURUA

ERTZAINZAKO FUNTZIONARIOEK HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO MEKANISMOAK ETA SALBUESPEN ERRREGIMENAK

15. atala.– 1.– Ertzaintzako praktiketako eta karreradun funtzionarioek honela egiaztatuko beharko dituzte hizkuntza eskakizunak:

a) Sartzeko aukeraketa prozesuetan edo lanpostuak betetzeko deialdietan egindako proben bidez.

b) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak helburu horrekin egindako aldian aldiko deialdien bidez.

2.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke proben edukia eta forma bat etorriko da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritakoarekin.

3.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko b) ataleko 1. paragrafoak aurrez ikusten dituen deialdiak Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratuko dira. Proben emaitzak, hautagaiek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunekin, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Iragarkien Oholtzan eta Herrizaingo saileko intraneten argitaratuko dira.

16. atala.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetako epaimahaiak izendatzean bermatu egin beharko da berezitasun printzipioa. Hori dela bide, karrerako funtzionarioek edo lan-kontratu-tuko langile finkoek osatuko dute eta gehienek egiaztatuta izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako lanpostuei aplikatzekoa zaion 4. hizkuntza-eskakizuna. Dena den, epaimahai hauetan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek parte hartuko du.

17. atala.– 1.– Ertzaintzako karreradun eta praktiketako funtzionarioek egiaztatutako hizkuntza eskakizunak, dekretu honetan ezarritako moduren batean egiaztatutakoak, Euskal Herriko Polizia Ikastegiko Idazkaritza Nagusian dagoen Hizkuntza-eskakizunen Erregistroan inskribatuko dira.

2.– Inskripzio horretan, funtzionarioaren identifikazioaz gain, dagokion eskala eta kategoria agertuko dira, bai eta zein hizkuntza eskakizun egiaztatu den eta noiz egiaztatu duen.

3.– Erregistroan, hala badagokio, salbuespenak inskribatuko dira, bai eta salbuespen hori zein egunetan eman den; kasu honetan aurreko idazatian lanpostuaren titularraren nortasunari eta lanpostuari buruz ezarritakoa beteko da.

18. atala.– 1.– Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.3 atalean xedatutakoarekin bat etorritik, ez dute zertan bete Ertzaintzako hizkuntza eskakizunen derrigortasun erregimen orokorra honako hauek:

a) Plangintza-etapa bakoitzaren hasieran 45 urte baino gehiago dituztenek, interesatua ados baldin badago.

b) Hizkuntzak ikasteko prozesuan beharrezkoa den gaitasunari dagokionez, ageriko trebetasun gabezia egiaztatuta dutenek.

2.– Hizkuntza eskakizunak betetzeko salbuespena, aurreko lerroaldean ezarritakoa, administrazio espediente kontrajarria bideratu ondoren deklaratu da. Hain zuzen ere, espediente hori Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko organo eskudunak irekiko du, bere kabuz edo interesatuak eskatuta.

3.– Salbuestsita daudenek, lanpostuak betetzeko deialdietan parte hartu ahal izango dute, eta derrigortasun-data ez duten lanpostuak bete ahal izango dituzte.

19. atala.– Aurreko artikulua 1. paragrafoko a) atalaren kasuan, Euskal Herriko Polizia Ikastegiak dagokion salbuespena aitortuko du, pertsona interesatuak jaioteguna egiaztatu ostean.

20. atala.– 1.– Hizkuntzak ikasteko beharrezko jarrera-trebeziak argi eta garbi eta egiaztatuta ez izateagatik espediente pertsona interesatuak eskatuta hasten denean, 18. artikuluko 1. paragrafoaren b) atalean xedatutakoarekin bat, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak espediente izapidetzeari buruz egokitasuna aitortuko du, baina alde aurretik Ikastegiko zuzendariak Batzorde Teknikoa izendatu eta horrek derrigorrezko txostena egin beharko du. Batzordearen konposizioa, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak agintzen duena betez osatuko da eta honakoa izango da:

a) Batzordeburua: Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

b) Batzordekideak:

– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko kide bat hizkuntza-prestakuntzan aditua; idazkari modura jardungo du.

– Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzako kide bat.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko kide bat, Erakundeko Zuzendaritzak proposatuta.

– Helduak Alfabetatu eta Berreuskalduntzeko Erakundeko kide bat, Erakundeko Zuzendaritzak proposatuta.

2.– Espedientea izapidetzen ari den bitartean, plana hasi zenetik egiaztatuko da pertsona interesatuak euskara-gaitasunaren prozesua jarraitu al duen eta honako baldintzekin egin al duen:

a) Etengabeko gaitasun-prozesua, hirurehun ikastordurekin eta horiek gutxienez ikastaro desberdinen iraupen guztiaren ehuneko laurogei izatea.

b) Gaitasun-prozesu etena, bostehun ikastordurekin eta horiek gutxienez ikastaro desberdinen iraupen guztiaren ehuneko laurogei izatea.

3.– Prozedura hasten den unetik sei hilabete igarotzen badira Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren berariazko ebazpenik gabe, eskaera onartutzat jo beharko da.

4.– Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak artikuluko honen 2. atalean aipatzen den Batzorde Teknikoaren aurrean ofizioz eta pertsona interesatuari entzun ondoren, salbuespena aitortzeko espedientea has dezake. Proposamena aztertuko du, ikasteprosuan ezintasun-ustezko larria dagoenean.

21. atala.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak, atalburu honetan ezarritakoa dela bide, aldi-aldi egiaztatzen eta salbuespenen zerrenda bidaliko dio Ertzaintzaren langile-erregistro organo eskudunari, interesatuen espedienteetan sartzeko, beti ere, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko aldizkako proba arrunten emaitzak argitaratzeko kalterik gabe eta interesatuei, hala badagokie, salbuespen deklarazioak jakinarazteko kalterik gabe.

VI. ATALBURUA

HIZKUNTZA GAITASUNERAKO IKASTAROAK

22. atala.– Dekretu honen 3. atalean Ertzaintzarako zehaztu diren hizkuntza eskakizunen berezitasunak kontuan hartuz eta zerbitzu publiko polizialaren beharrezkoak behar bezala egituratzeko, Herrizaingo Sailak, Ertzaintzako funtzionarioei 1. eta 2. Hizkuntza eskakizunak lortzea ahalbidetzeko baliabideak izango ditu, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak programatu, antolatu eta garatuko dituen hizkuntz gaitasunerako ikastaroen bidez. Hori guztia Euskararen Erabilpena Arautzeko 10/1982 Legearen 14. atalaren babespean eta Euskal Herriko Poliziari buruzko 39. atalean xedatutakoarekin bat etorritik.

23. atala.– 1.– Aurreko atalean xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak Ertzaintzako funtzionarioentzako hizkuntz gaitasunerako jardueren programazioa egingo du.

Hizkuntza eskakizun bakoitzaren prestakuntza programa eta metodoak definitzeko, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen partehartzea eskatuko du.

2.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak aldi-aldi deituko dituen hizkuntz gaitasunerako ikastaroetara joango diren funtzionarioen aukeraketa egitean, lehenengo eta behin, kontuan izango da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-dataren muga-egunaren

hurbiltasuna eta, irizpide hori ez denean nahikoa, dekretu honen 7 eta 8. ataletan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

3.– Aurreko idazatian aipatutako lanpostuen titularrei, hizkuntz gaitasunerako ikastaroetan parte hartzeko deia honela egingo zaie: deialdiarekin batera berauon izena argitaratuko da, eta funtzionario bakoitzari beronen lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna lortzeko emango zaion ordu-kreditua adieraziko da.

Ordu-kreditua zehazteko, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak kontuan izango du sartzeko prestakuntza jardueretan edo prestakuntza iraunkorreko jardueretan funtzionarioek egiaztatu duten euskara maila, edo geroago beste prestakuntza jarduera batzuetara sartzeko aukeraketa prozesuetan egiaztatu dutena. Dena den, deialdietan izangaiaren euskara maila behar bezala egiaztatzeko proba egokiak ezar daitezke.

4.– Parte hartzeko deia egin ondoren, ikastarora joan ezean, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak aurrerantzean dei ditzakeen hizkuntz gaitasunerako ikastaroetan parte hartzeko eskubidea galduko da, salbu eta ikastarora ez joateko ezinbesteko arrazoia izan badu. Gauza bera gertatuko da ikastaroa ez bada gainditzen funtzionario bakoitzari emandako ordu-kreditua agortu ondoren.

5.– Herrizaingo Sailak bermatu egingo du lanpostuaren titularra den funtzionarioa hizkuntza gaitasunerako ikastaroan parte hartzera deitua izan dela, lanpostu baten hizkuntza eskakizunari dagokion derrigortasun-data heldu orduko.

Derrigortasun-data igaro ondoren lanpostu baten titularrari dagokion gaitasun ikastaroan parte hartzeko deituko ez baliote, edo ikastaroa egiten ibiliko balitz, hizkuntza eskakizuna betetzeko salbuetsita geratuko litzateke, harik eta hizkuntza gaitasunerako ikastaroa hori bukatu arte.

VII. ATALBURUA

SINDIKATUEN PARTEHARTZEA

24. atala.– Euskal Herriko Poliziari buruzko 103.3.h atalean xedatutakoarekin bat etorritik, atal horretan araututako negoziazio mahaian jorratuko da hizkuntza eskakizunen derrigortasun daten zehaztapena. Hori egingo da lanpostuen zerrendan derrigortasun-data sartu baino lehen eta Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 17. atalean Ertzaintzaren Kontseiluari emandako eskumenen kalterik gabe.

Era berean, Euskal Herriko Poliziari buruzko 103.2 atalean xedatutakoarekin bat etorritik, Ertzaintzako sindikatuarekin negoziatuko da 2. hizkuntza-eskakizunaren ezarpena, lanpostuen zerrendan sartu baino lehen.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honetan xedatutako hizkuntza-eskakizunen baliokidetasun-araubidea 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, euskararen ezagutzak egiaztatzeko tituluak eta ziurtagiriak baliozkotu eta Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Erkideari moldatzen dizkionak, zehaztutakoa da.

Bigarrena.– Lanpostuek derrigortasun-data gainditua badute eta horiek ohiko hornidura-prozeduren bitartez bete ez badira, hornidura atzeraezina izanez gero, aldi baterako hornidura-formulekin beteko dira eta, horretarako, Euskal Herriko Poliziaren Legeak III. Tituluko II. Kapituluan aurrez ikusitakoari erreparatuko zaio. Azkeneko kasuan hizkuntza-eskakizunaren baldintza betetzen dela ez da egiaztatu behar.

Hirugarrena.– Plangintza-aldi bat bukatu ostean, Eusko Jaurlaritzak Ertzaintzan hurrengo plangintza-aldian derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izango duten lanpostuen indizea finkatuko du.

Laugarrena.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin hitzarmen bana sinatu ahal izango ditu Ertzaintzako euskalduntze normalkuntzarako prozesuan berauon lankidetzaz ezartzeko, batez ere, honako arloetan:

a) Hizkuntza eskakizun bakoitzaren prestakuntza programa eta metodoen definizioa, bakoitzarentzat deskribatutako hizkuntz gaitasunen oinarritzko edukiarekin bat etorritik.

b) Kasu bakoitzean beharrezkoa den euskara maila egiaztatzeko ebaluazio probak egitea, hizkuntza eskakizun bakoitzaren oinarritzko edukiarekin bat etorritik eta eurotako bakoitzaren maila jasotzeko garatu den prestakuntza programarekin bat etorritik.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden arau guztiak indargabetuta geratu dira, baldin eta maila berekoak edo beheragokoagoak badira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Herrizaingo Sailak, urtebete baino lehenago, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak txostena egin ondoren, Ertzaintzako euskararen erabileraren Normalkuntza Plana onartuko du, eta bertan, gutxienez, honako hauek bilduko dira:

a) Lehentasunak ezartzea agiri normalizatuak euskaraz egiteko.

b) Ertzainek euren funtzioak betetzean hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko neurriak ezartzea; eta batez ere, herritarrekiko eta beste instituzio batzuekiko ahozko eta idatzizko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko neurriak.

c) Dekretu honetan jasotako helburuak lortzeko behar diren neurri batzuk.

Bigarrena.– Herrizaingo Sailburuari baimena emango zaio dekretu honetan xedatutakoa beteazterako eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena.– Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko otsailaren 24an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

Kultura sailburua,
M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

1998/24 Dekretuak, otsailaren 24koak, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duenak, duen I. eranskina.

1. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAREN EDUKIA

Entzumena:

Ertzaintzaren 1. HE duena gai izango da:

Konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ulertuko ditu, gaia gutxi-asko ezaguna badu. Halaber, ikus-entzunezko berri-emankizun eta saio gehienak, hizkuntza estandarrean, ulertzeko gai izango da.

Herritarrek emandako informazioa eta egindako kexak, deskribapenak eta laguntza eskaerak ulertzeko.

Gai izango da, besteak beste, lan arloan:

Pertsona, erakunde, gertakari, gorabehera, ustekabe, etab.ei buruz herritarrek emandako informazioa ulertzeko.

Delitu edo hondamendia jasan duten biktimengandik edota, eskainitako zerbitzua dela eta, herritarrengandik oro jasotako kexak, salaketak, etab. ulertzeko.

Laguntza edo polizia-zerbitzuren baten beharrean dauden pertsonen (errepideetako sorospena, etab.) eta arrisku-egoeran daudenek (lurjausiengatik, eraikina egoera txarrean egoteagatik, intimidazioengatik...), edota delituren bat (erasoak, atrakoak...) edota hondamena (uholdeak, suteak...) jasan dutenek egindako laguntza edo polizia-zerbitzuren baten eskaera ulertzeko.

Toponimo, bide, eta pertsona, paisaia, leku, gertakari etab.ei buruzko deskribapena zehaztuta, lanen koordinazioa, aktuazioa eta aurreikuspena bideratu ahal izateko irratir bidez jasotako mezua ulertzeko.

Informazio-eskaera zein -komunikazio jakin bat ulertzeko (helbideak, etab.).

Administrazio-zerbitzu baterako eskaera ulertzeko: baimenen berritzea, lizentziak, etab.

Gertakari, gorabehera; pertsona susmagarri, biktima; prozedura, leku, zerbitzuen kalitate; aukera desberdinen abantaila edo gabezia beste batek egindako balorazioa ulertzeko.

Hartutako erabakia, lan bat egiteko aukeratu edo proposatutako bidea, eskaeren ezespena, etab. direla eta, edota lan bat etetea edo lan hori hasieran erabaki ez bezala egiteagatik arrazoi-tzerakoan beste pertsona batek emandako argudioak ulertzeko.

Nagusiek, beste polizia eta erakundeek, etab.ek egindako edo egiteko dauden lanei buruzko ezaugarriei edo zentroaren funtzionamenduari buruz egindako informazio-eskaera edota herritarrek euren eskubide eta betebeharrei buruz egindakoa ulertzeko.

Talde nahiz bakarkako lan bat egin edo zuzentzeko (ikerketaren bat, patruila-lanaren bat, interbentzioren bat) baita lan hori koordinatu eta burutzeko ere jasotako agindu, jarraibide, iradokizun eta proposamenak ulertzeko.

Aparatu eta bestelako materialak erabiltzeko moduari zein lanei buruzko ezaugarrien gaineko oinarritzko argibideak ulertzeko.

Laneko materiala eskuratzeko (antidisturbioak: pilotak, eskopetak, kartutxoak,...; kontrol bate-rakoa: linternak, boila argidunak, konoak,...; komunikaziorakoa: pilak, talkiak,...; ibilgailuak hornitu eta mantentzekoa, etab.) egindako eskaera ulertzeko.

Birziklapen-, hobekuntza-, sustapen-ikastaroetan eta materiala nola erabili erakusteko egiten direnetan jasotako informazioa ulertzeko.

Irakurmena:

Ertzaintzaren 1.HE duena gai izango da:

Gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoena ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira.

Gaur eguneko gaiei buruzko artikulua eta txostenak ulertzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean.

Gai izango da, besteak beste, lan arloan:

Ohar, panfleto, kartel, graffitti, etab.en gain-irakurketa egiteko.

Nagusiei zuzenean emateko, edota formularioak, eskariak, etab. betetzeko kaleko kartel, panfleto, etab.etatik edota jakinarazpen eta agirietatik informazio zehatza (datak, lekuak, zenbakiak,...) lortzeko.

Herritar, erakunde, elkarte, kofradia, etab.ek aurkeztutako agiri edo idazkiak (karguak kentzeko orriak, udal-bandoak, etab.) ulertzeko.

Lapurtutako ibilgailu, matrikula-zerrenda, desagertutako pertsona, gaizkile arriskutsu, etab.ei buruz idatziz emandako informazioa ulertzeko.

Baimen, oporraldi, bidai gastu, etab.ei buruzko zirkular, jarraibide, administrazio-jakinazpen eta eskaerak ulertzeko, baita iragarpen-oholetan azaltzen den informazio, jakinarazpen, zerbitzuohar, etab.ak ere.

Materiala, zerbitzu burokratikoak (egiaztagiriak), dirulaguntzak, lokalak, ekipamenduak, etab. Eskatuz jasotako zerrendak, inprimakiak, eskabide-orriak, etab. ulertzeko.

Mintzamina:

Ertzaintzaren 1. HE duena gai izango da:

Jarriotasun eta naturaltasun nahikoaz mintzatzeko, bai eguneroko gaiei buruz bai bere lanjarduerako gaien gainean, eztabaidetan parte hartuz eta azalpenak eta iritziak emanez, baita jatorrizko hitzuneekin ere; beti ere, solaskideek elkar ulertzeko ahalegin handiegirik egin gabe.

Deskribapen eta azalpen argiak eta xeheak egiteko bere espezialitatearekin zerikusia duten hainbat gairi buruz, eta bere ideiak zabaltzeko eta aldatzeko alderdi osagarriak eta adibide esanguratsuak txertatzeko.

Halaber, gai izango da zuzentasun nahikoa onaz mintzatzeko eta diskurtso-zatiak nahiko erritmo uniformean sortzeko.

Gai izango da, besteak beste, lan arloan:

Herritar, elkarte, enpresa, etab.ei, segurtasun neurriez (bide-segurtasuna, etab.), aurreikuspen-neurriez (ekaitzen, iruzurren aurrean) edota haien eskubide eta laguntzak jasotzeko moduaz informazioa emateko.

Miaketa, bide-kontrol, garraioen ikuskatze, prebentziozko jagoletza, bulegoetako sarrera- eta irteera-kontrol, etab.etan dokumentazioa edo informazioa eskatzeko.

Administrazioko tramiteei buruzko informazio orokorra (armak erabiltzeko baimena, garraioetarakoa; herritarrei dagozkien gaiak...) edota bestelako informazioa (bideen egoera...) telefonoz zein aurrez aurre emateko.

Egoera desberdinetan legea ezartzerakoan bere jarrera defendatu eta argudioak emateko (isunak jartzerakoan, miaketetan, gatazketan, epaiketetan...).

Megafonia edo irrati bidez oharrak emateko, atxilotuei euren eskubideak irakurtzeko, etab.

Bide, hirigune eta nekazaritza-ingurunez (hondamenak, trabak, seinalizazioak, kontroletik kanpo dauden animaliak, sasi-sastraken erreketak,...); bulego, erakunde eta eraikinez (segurtasuninstalazioak, alarmak, etab.); materialez (ibilgailu, armak, etab.); (kultur zein kirol) ekitaldiez, manifestazioez, etab.ez, eta edozein gorabeheraz informazioa emanez operatiboki interesgarriak diren oharrak oro har eta ekintzetan parte hartzeko eskaerak zuzenean nahiz irrati bidez bideratzeko.

Egindako, egiten ari diren edo egin nahi diren lan edota zerbitzuez (lanaren burutze-maila, arazoak, jarraibideak, epeak, bitartekoak,...) bileretan edota zuzenean informazioa emateko, baita herritarrengandik, elkarteetatik, etab.etatik jasotako datu eta informazioa ere.

Lan edo gestio bat egin ahal izateko lankideren bati laguntza eskaini edo eskatzeko.

Lan edo polizia-zerbitzu batek izan dezakeen eraginaz, azken orduko aldaketez, hasiera batean aurreikusi ez ziren egoerez, etab.ez argudioak emateko.

Lan bat egiteko jardunbideei buruz, administrazio-gestioak burutzeko moduaz jarraibideak emateko.

Idazmena:

Ertzaintzaren 1.HE duena gai izango da:

Bere intereseko gaiei buruzko testu argiak eta xeheak idazteko, eta hainbat iturritako informazioa laburtzeko eta ebaluatzeko. Gai izango da, halaber, idazlanak eta txostenak idazteko, argudio bat era sistematikoan garatuz, alderdi nagusiak nabarmenduz eta lagungarri gertatzen diren xehe-tasunak emanez.

Gai izango da, besteak beste, lan arloan:

Laneko gorabeherari buruzko berri emanez lan-partea betetzeko eta barruko zein administratziomailako gorabeherari buruzko (istripuak, gorabeherak oro har, etab.) idatzi zehatzak idazteko.

Trafiko-edo garraio-salaketak idazteko eta tarteka seinalizazio oker, lur-jausi, alkoholemia inprimaki, etab.ei buruzko txosten zehatzak egiteko.

Material-maileguei buruzko fitxak betetzeko, administrazio-inprimakiak osatzeko (baimenak, eskariak,...) eta agiri eta materialen sarrera eta irteeren erregistroa eramateko.

Panel mugikorrek eta antzekoak erabiliz, iragarkien oholerako matxura, arrisku, salaketa, istripu jakin, etab.ei buruzko ohar laburrak idazteko.

1998/24 Dekretuak, otsailaren 24koak, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duenak, duen II. eranskina.

2. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAREN EDUKIA

Entzumena:

Ertzaintzaren 2. HE duena gai izango da:

Kultura orokorreko zein polizia eremuko elkarreragineko edozein testuinguru, gai eta egoeratan erraztasunez parte hartzeko, eta euskara estandarrean zein edozein euskal hizketatan emandako instrukzioak, azalpenak, narrazioak, argudioak, elkarrizketak, ... ulertu eta informazio orokorra eta zehatza jasotzeko.

Gai izango da, besteak beste, lan arloan:

Herrizaingo Saileko arduradun polizialek edota epaitegi zein bestelako erakunde pribatuetako arduradunek emandako informazioa ulertzeko.

Bere menpe daudenek edota beste unitate zein erakundeetako arduradunek egindako kexak, salaketak, iradokizunak eta ahozko jarraibideak ulertzeko.

Jasotzen duen informazioak poliziarentzat duen garrantzia neurtzeko.

Segurtasun Sailburuordetzaren aurrean bere ardurapean dituen alor, unitate, talde, etab.en ordezkari lanetan dabilenean, argudio, eskaerak, agindu eta jarraibideak ulertzeko.

Nagusiek ezarritako arau, protokolo, jarraibideak.... ulertzeko, ondoren bere menpeko langileei jakinarazteko.

Birziklatze-, hobekuntza-, sustapen-ikastaroetan, etab.etan jasotako informazioa ulertzeko.

Eta oro har, hitzaldi luzeak ulertzeko, baita argi egituratuta ez daudenean ere, eta loturak inplituak direnean, hau da esplizituki adierazten ez direnean.

Mintzamena:

Ertzaintzaren 2. HE duena gai izango da:

Jatorrizko hitzunikiko edozein elkarrizketatan euskara estandarrean, behintzat, parte hartzeko.

Halaber, instrukzioak eta azalpenak emateko; narrazioak eta kontaketak egiteko; iritziak eta argudioak emateko; eta deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, baita bere espezialitatekoak ez direnean ere; eta ideien azalpen koherentea egiteko eta ondorio egokia ateratzeko. Horiek guztiak egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez egingo ditu.

Gai izango da, era berean, etorri eta bat-batekotasunez hitz egiteko, esamolde egokiak aurkitzeko ageriko ahaleginik egin gabe.

Gai izango da, besteak beste, lan arloan:

Gainerako alor, unitate, talde, edota nagusiei ekintzen (polizialak, diziplinakoak), egoeren eta giza-, ekintza- eta material-baliabideen berri emateko.

Arau, protokolo, agindu edota egoerak, gatazkak zein ekintza planak jakitera emateko.

Ikerketa eta ekintza bakoitzaren aurrean ardurak zehazteko, eta beharrezkoa denean, burutze-denborak zein aurreikusitako ekintza-baliabideak zehazteko.

Aginduak, kexak eta premiak ezagutzera eman eta bideratzeko.

Komunikabideen informazio eskaerei erantzuteko edota elkarrizketak kudeatzeko.

Gatazken konponbidea negoziatzeko; adibidez, zirkulazio-isun bidegabe baten aurrean, pisu batean eragindakoa kalteen ordain ekonomikoak eskatzen direnean edo istripu baten erruduntasun erantzukizuna eskatzen denean...

Eta oro har, malgutasunez eta eraginkortasunez eraturako hitzaldi argi eta ongi egituraturakoen bidez hitz egiteko, eta gizarte- eta lanbide-helburuekin loturiko iritziez luze samar aritzeko.

Irakurmena:

Ertzaintzaren 2 HE duena gai izango da:

Polizia eremuko eta kultura orokorraren mailako prosa-testuak, saiakera arruntak, erreportaje eta artikuluak, deskribapenak, barne buletinak zein zirkularrak, txostenak, iritzi-artikuluak, jarraibide teknikoak, azalpen luzeak etab. ulertzeko.

Gizarte harremanekin, lanbide polizialarekin edo ikasketekin zerikusia duten era askotako testu luze eta konplexuak ulertzeko eta jarrera edo iritzi inplizituak zein esplizituak adierazten dituzten xehetasun sotilei antzemateko, baldin eta atal zailenak berriro irakurtzeko aukera badu.

Gai izango da, era berean, edozein informazio orokor eta zehatz ulertzeko.

Gai izango da besteak beste, lan arloan:

Segurtasun Sailburuordetzatik edo bestelako erakundeetatik helarazten zaion dokumentazioa ulertzeko: ikerketei buruz organo judizialek igorritako txostenak, herritarren segurtasuna eta ordenu publikoaren aurrezaintzarako interesgarria izan daitekeen informazioa, delituari aurrea hartzeko eta zigortzeko helburua duten protokoloak eta instrukzioak, ...

Zirkularrak, barne buletinak, oinarrizko barne zirkularrak (janzkerari, ordutegiei, txandei... buruzkoak), protokoloak, jarraibide polizialak, ikerketa/informazio txostenak, materialei eta pertsonari buruzko antolaketa prozedurak, bere aginduetara duen pertsonalari buruzko errendimendu txostenak, etab. ulertzeko.

Herrizaingo Sailarekin zerikusia duten prentsako albisteak eta iritzi artikuluak aztertzeke.

Eta oro har, artikulu espezializatuak eta jarraibide teknikoan azalpen luzeak ulertzeko, bere espezialitateari lotuak izan ez arren.

Idazmena:

Ertzaintzaren 2. HE duena gai izango da:

Polizia eremuko eta kultura orokorraren mailako gaiak buruz gutunak, jakinarazpenak, jarraibide eta oinarrizko barne zirkularrak; lanarekin zerikusia duten ekintzei buruzko laburpenak, narrazioak, erreportajeak, artikuluak, azalpenak, txostenak eta antzekoak idazteko. Horiek guztiak egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez egingo ditu.

Halaber, testu luzeak, ongi egituratuak, argiak eta zehatzak idazteko gai izango da, ideien azalpen luzea eginez, eta hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiliz. Testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliko ditu, baieztapenak zein iritziak zehatz-mehatz adieraziz.

Gai izango da, besteak beste, lan arloan:

Gutunak, jakinarazpenak, jarraibide eta oinarrizko barne zirkularrak (janzkera, lan-egonaldi, diziiplina, jarrera, protokoloak buruzkoak...), lanarekin zerikusia duten artikulak, ekintzei buruzko laburpenak eta kultura orokorreko antzeko gaiei buruzko beste hainbat testu idazteko.

Laneko edo diziiplina alorreko agiriak betetzeko eta administrazio gorabeherari buruzko txostenak idazteko.

Errendimendu, segurtasun, trafiko, ikerketa eta herritarren segurtasunari buruzko txostenak egiteko bere arduradunentzat, Segurtasun Sailburuordetzako beste unitateentzat, edo bestelako erakundeentzat (eremu juridikokoak, herri-erakundeak, polizialak etab.).

Komunikabideen informazio eskaerari erantzuteko edo hedabideentzat erreportajeak ekoizteko.

Eta oro har, gai konplexuei buruzko testuak (gutunak, txostenak edo idazlanak...) idazteko, garrantzizkoak diren alderdiak nabarmenduz, eta idatziak zein irakurleri zuzenduak diren kontuan izanik, horren araberrako estiloa hautatzeko.